

ADIERAZLEA:	ERAIKUNTZA SEKTOREKO ENPLEGUA
FITXA METODOLOGIKOA	
ARDATZA:	ENPLEGUA ETA HEZKUNTZA
ALORRA:	ENPLEGUA
DEFINIZIOA:	
<p>Eraikuntza enpleguen partaidetza, ehunekotan, udalerrian dauden establezimenduetako enplegu guztien aldean.</p>	
NEURRI UNITATEA:	
%	
KALKULU METODOLOGIA:	
$\frac{\text{Eraikuntza sektorean enplegu kopurua}}{\text{Enplegu kopurua}} * 100$	
KALKULU MAIZTASUNA:	
Urtero	
INFORMAZIO ITURRIAK:	
Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), Eustat.	
OHARRAK:	
<p>Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID) eragiketak informazioa jasotzen du Euskal AEn jarduera ekonomikoak egiten dituzten establezimenduen eta enpresena; oinarritzko egiturazko informazioa ematen du jarduera ekonomikoaren sektoreen gainean eta erreferentzi-markoa da zentsuak eta inkestak egiteko; erkidegoko establezimenduetan lanean ari den biztanleriaren azterketa ere ahalbidetzen du. Gaur egun ez dira sartzen lehen sektoreko jarduerak, etxerako langileak enplegatzen dituzten familiak eta lurraldez kanpoko erakundeak.</p> <p>Erreferentziako urtearen aurreko urtean jardueretan modu aktiboan parte hartu duten pertsonen batez bestekoa, eskudirutako edo espeziezako ordainsari baten truke edo enpresa-mozkinen parte baten truke, izango da establezimenduek sortutako “enplegua”.</p> <p>Kontzeptu horretan mota guztietako laneskua sartzen da: jabeak, autonomoak eta bazkide aktiboak, famili laguntzak (partaidetza iraunkorra izan edo ez izan), soldatapeko langile finkoak (etengabeak edo etendunak), eta soldatapeko aldi baterako langileak, nahiz eta aldi batez lanean egon ez, edozein arrazoi dela medio, baina lan harremanak irauten badu (gaixotasuna, amatasun baimena, oporrak, greba, lansaioaren erregulazioa, etab).</p> <p>Lanaldi partzialean egiten diren jardueretan, denboraldikoetan, urtebete baino denbora laburragoan egiten direnetan (urte horretan irekitzeagatik edo ixteagatik), soldatapeko aldi baterako langileek egindakoetan edo langile finko etendunek egindakoetan, lanaldi osoan urteko batez besteko baliokidea zenbatuko da okupatutako langile gisa.</p> <p>Eraikuntzako enplegu-kopurua zehazteko orduan, Jardueren Sailkapen Nazionalako (CNAE-2009) F hizkian dauden enpleguak hartuko dira aintzat.</p>	